

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak nekazari profesionalentzako eta lehentasunezko ustiapenatarako nekazaritza-aseguruak kontratatzeke laguntza bermatuko du

*Beste autonomia erkidego batzuek laguntzak eten dituzten bitartean, Nafarroak sistema aldatu du haien iraunkortasuna bermatzeko eta eskaera guztiei erantzuko die*

Martes, 23 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren bidez, nekazaritza-aseguruen kontratazioa diruz laguntzen jarraituko du Nekazari Profesional izaera duten guztiei eta Nekazaritzako Gizarte Segurantzaren kotizatzen dutenei, bai eta izaera juridikoa duten nekazaritza edo abeltzaintzako ustiapenen kasuan ere, lehentasunezko ustiapenatarako. Gobernuak 2013ko Nekazaritzako Aseguru Konbinatuen Planean dauden aseguruen kontratazioari emandako laguntza bermatzea da kontua.

Neurri horrekin batera, Departamentuak kanpaina honetan laguntzak kudeatzeko eta ordaintzeko egungo sistema aldatuko du; horrenbestez, diru-laguntzaren zenbatekoa poliza kontratatzen den unean deskontatzeari utziko zaio, orain arte gertatu den bezala, eta hura kontratatzen denetik hurrengo ekitaldian ematera pasako da. Era horretan, 2013an izenpetutako polizetarako, laguntzak 2014an ebatziko eta emango dira.

Gainera, sistema-aldaketak ekarriko du nekazari profesionalak eta lehentasunezko ustiapenek izenpetutako poliza guztiek Foru Gobernuaren laguntza jasotzea. Orain arte, gerta zitekeen aurrekontu-hornidura ez izateagatik laguntzarik gabe geratzen ziren espedienteak egotea.

Aldaketa horiekin, eta beste autonomia erkidego batzuetan gertatu denaren aurka non nekazaritza-aseguruei laguntza emateko sistema autonomikoa eteteko erabakia hartu zen, Nafarroan laguntza horiei eutsi eta haien iraunkortasuna bermatzen da. Era horretan, nekazaritza-sektoreko profesionalentzako eta Nafarroako lehentasunezko ustiapenatarako kezkak desagertzen dira Foru Gobernuak nekazaritzako aseguru-sistemari laguntza ematen jarraitzearen inguruan; beraz, beren ekoizpenak aseguratzeko jarrai dezakete, orain arte bezala.

Aseguratuak laguntzen sistema berria baliatzeko zailtasun gehigarriak aurki ez dituzan eta izapidea era arin eta errazean egin ahal dezan, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak, Agroseguro SAREN laguntzarekin, beharrezkoak diren ekintzak egingo ditu hartzailerek jasotako polizen informazioa telematikoki

Departamentuari helaraz diezaioten, hala, polizak berak laguntza-eskaeraren tratamendua jaso dezan.

Aldaketa horiek laster batean Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko diren laguntza-deialdi batean jasoko dira.

Ekitaldi honetako aurrekontuan, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak 3,6 milioi euro erabiliko ditu nekazari eta abeltzainek nekazaritza-aseguruak kontrata dezaten laquntzeko.